

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5697

155/2022 DEKRETUA, abenduaren 13koa, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan bokal bat kargutik kentzeko eta beste bat izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren atariko tituluaren II. kapituluan daude araututa interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiako portuak sartzan dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretuak behar diren neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan honela dago ezarrita:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Bokal-kopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzerakoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak bokal horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Bokaletako bat estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak Erakunde Publikokoa.

b) Autonomia Erkidegoa lehendakariak eta lau bokalek ordezkatuko dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkariak izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik eta behin ordezkariak honako hauei egokituko zaie: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ ei izena ematen dien haiei; eta gero gainontzekoei: zerbitzuguneak eragiten dion udal-mugar-tearen azalarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66a, honako hauen ordezkari egokitu izendatuko da: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkari duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak Erakunde Publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen paragrafoko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahaz izango da, alde batera utzi gabe hurrengo apartatua ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkari dituzten antolakundeei, organismoek eta erakundeek hala proposatuta».

Horiek horrela, eta Jaurleari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu batekina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 13an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko bokalaren kargutik kentzea Esteban Pereda Esteban jauna, zeinak ELA erakunde sindikala ordezkari baitu.

2. artikulua.– UGT erakunde sindikalaren ordezkari José Luis García Fernández jauna Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko bokal izendatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari kargutik kendutako eta izendatutako bokalen berri ematen zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.